INTXAURTXUETA 26, 1. EZK. HELBIDEKO UDAL ETXEBIZITZA ERRENTAN EMATEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA ARAUTU BEHAR DUEN BALDINTZA AGIRIA.

1. BALDINTZA. KONTRATUAREN HELBURUA.

Eskoriatzako Udalaren jabetzako ondorengo etxebizitza alokatzea da kontratuaren helburua. Horrekin alokairua sustatzea lortu nahi da, eta alokairurako erabiliko diren irizpideek, berriz, ahalbidetu beharko dute etxebizitzarik ez dutenek etxebizitza duina eta egokia izateko duten eskubidea gauzatu ahal izateko baldintzak ezartzea.

- 1. ETXEBIZITZA

ESKORIATZAKO INTXAURTXUETA AUZOKO 26. ZENBAKIDUN ESKAPEKO LEHENENGO SOLAIRUKO EZKERREKO ETXEBIZITZA

Gutxi gorabehera 69,55 m2-ko azalera erabilgarria du.

Honako ERANSKINAK (BEREIZTU EZIN DIRENAK) eman zaizkio:
A) 16 ZENBAKIA duen GARAJEA.
B) 1 ZENBAKIA duen TRASTELEKUA.

2. BALDINTZA. IZAERA JURIDIKOA.

Kontratuak kontratu pribatu kalifikazioa du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 9. artikuluak ezarri bezala (lege horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora).

3. BALDINTZA. HAUTAKETA ETA ESLEIPEN PROZEDURA.

Alokairu kontratua lehiaketa publikoz esleituko da, Herri-administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legeko 107.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Eskaerak baloratzeko 9.2 baldintzan jasotako esleipen irizpideak hartuko dira kontuan.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

4. BALDINTZA. KONTRATATZAILEAREN PROFILA.

Kontratu-jarduerari buruzko informazioaren gardentasuna eta informazio hori herritarren esku egongo dela ziurtatzeko, eta bestelako publizitate bideak erabiltzearen kalterik gabe, Udal honek kontratatzailearen profila du, eta ondorengo orrian araututakoari jarraiki sartu beharko da bertara: www.eskoriatza.net.

Baldintza agiriei buruzko informazio osagarria ere eskatu ahal izango da helbide honetan:

- Eskoriatzako Udala
  Fernando Eskoriatza z.g.; 20540 Eskoriatza
  Tel.: 943 714407
  E-posta: hazi@eskoriatza.eus

5. BALDINTZA. KONTRATUEN IRAUPENA.

Kontratuak URTE BETEKO (1) iraupena izango du. Hitzartutako epemuga iritsitakoan, eta hiri errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeko 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratua urtez urte luzatuko da errentamenduak ZAZPI (7) URTE egin arte, baldin eta maizterrak alokatzaileari berriztatzeko asmorik ez duela adierazten ez badio, gutxienez, kontratua edo horren luzapena amaitu baino hogeita hamar egun lehenago.

Kontratuaren edo kontratuaren edozein luzapenen mugaeguna iritsita, gutxienez zazpi urte igaro ondoren, alderdietako batek ere kontratua ez berritzeko asmoa ez badio besteari jakinarazi, gutxienez mugaeguna baino lau hilabete lehenago errentatzailearen kasuan, eta gutxienez bi hilabete lehenago errentariaren kasuan, beste urtebetez luzatuko da, Hiri Errentamenduen Legearen 10. artikuluan ezarritakoaren arabera.

UKO EGITEA: maizterrak kontratuari uko egin diezaioke indarraldiko edozein unetan, betiere, gutxienez bi hilabete aurretik dagokion aurreabisua egiten badio alokatzaileari.

6. BALDINTZA. ALOKAIRUAREN PREZIOA.

Kontratuaren urteko prezioa honela ezarriko da: errentariaren bizikidetza unitatearen urteko diru-sarreren arabera, babes ofizialeko etxebizitzen gehieneko prezioak eta errentak eta zuzkidura-bizitokien kanona zehazteari buruzko 2022ko, ekainaren 30eko Aginduaren 17. artikuluan ezarrita bezala zenbatuta.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

Etxebizitzaren prezioa: 71.952,72€

a) Gehienez 3.000 euroko diru-sarrerak dituzten bizikidetza-unitateak: 2,27%.

b) 3.000 eurotik gorako eta gehienez 9.000 euroko diru-sarrerak dituzten bizikidetza-unitateak: 3,18%.

c) 9.000 eurotik gorako eta gehienez 15.000 euroko diru-sarrerak dituzten bizikidetza-unitateak: 4,09%.

d) 15.000 eurotik gorako eta gehienez 18.000 euroko diru-sarrerak dituzten bizikidetza-unitateak: 4,73%.

e) 18.000 eurotik gorako eta gehienez 22.000 euroko diru-sarrerak dituzten bizikidetza-unitateak: 5,45%.

f) 22.000 eurotik gorako eta gehienez 25.000 euroko diru-sarrerak dituzten bizikidetza-unitateak: 6,6%.

g) 25.000 eurotik gorako eta gehienez 28.000 euroko diru-sarrerak dituzten bizikidetza-unitateak: 7,5%.

h) 28.000 eurotik gorako eta gehienez 35.000 euroko diru-sarrerak dituzten bizikidetza-unitateak: 9,64%.

i) 35.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten bizikidetza-unitateak: 10,73%.

Errentamendu egunetik kontatzen hasita, errenta hilabetero eta modu aurreratuan ordaindu beharko da hilabete bakoitzeko lehen hamar egunen barruan.

Errentaria behartuta dago kontu korronte edo banku-libreta bat izatera ordainketa-helbide bezala, hileko kuotak bertatik kobratzeko. Kontu edo libreta zenbakia jakinarazi beharko dio alokatzaileari.

7. BALDINTZA. ERRENTA BERRIKUSTEA.

Kontratuaren indarraldiko urte bakoitzean eguneratuko da errenta, Etxebizitza Errentamenduen Erreferentzia Indizea aplikatuta.

Familiaren diru-sarreretan aldaketak egonez gero, datuak eguneratu behar dira errenta berriz kalkulatzeko.

8. BALDINTZA. LIZITATZEKO GAITASUNA.

Esleipen prozesuan parte hartu ahal izango dute jarduteko gaitasuna izanik Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusitako ezintasun eta bateraezintasun inolako kasutan ez egon eta honako baldintzak betetzen dituzten pertsona naturalek:

ZIRRIBORROA - BORRADOR

- Adinez nagusia edo emantzipatua izatea.
- Eskoriatzako Udalean erroldatuta egotea gutxienez 2025eko azaroak 22a baino lehenagotik eta etenik gabe.
- Etxebizitza eskatzaileen Eusko Jaurlaritzako erregistroan izena emanda egotea etxebizitza erosteko edo alokatzeko eskatzaile bezala.
- Etxebizitza beharra egiaztatuta edukitzea eskatzailea honako egoeran egoteagatik:

- Bizikidetza-unitateko kide batek ere jabetzan etxebizitzarik ez edukitzea Euskal Autonomia Erkidegoan, ez jabetza soilik, ez lurrazal-eskubiderik edo usufrukturik. Baldintza hori ez dute bete beharrik izango 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 9. artikuluan jasotako salbuespenetakoren batean daudenak. Agindu hori etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa da, eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuak eman zuen.

- Baldintza horiek betetzen dituzten pertsona edo bizikidetza unitateek babes ofizialeko etxe bat alokairuan, zuzkidura-alojamendu bat edo parekatutako etxebizitzaren bat erabiltzen ari baldin badira, bakarrik onartu ahal izango dira alokairuaren amaiera eskaera egiteko epea amaitu ondorengo sei hilabetetan amaitzea aurreikusita baldin badago kontratuan. Baldintza hori betetzetik salbuetsita daude mugikortasun mugatuko desgaituren bat duten bizikidetza unitateak, Udal gizarte zerbitzuek egindako txostenaren arabera errentamendura ateratako etxebizitza egokiagoa bada horien irisgarritasun beharretarako.

Diru-sarrera konputagarrien jasotzaile gisa bizikidetza-unitatea osatzen duten pertsona guztiak hartuko dira kontuan.

Babes ofizialeko etxebizitzen erregimenari eta etxebizitza eta lurzoru arloko finantza neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuan zehaztutako irizpideen arabera kalkulatu eta haztatuko dira diru sarrerak.

9. BALDINTZA. ESLEIPEN PROZEDURA.

9.1.- ESKAERAK: AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA, BETEBEHARRAK ETA DOKUMENTAZIOA

Eskaera bakarra onartuko da bizikidetza unitate bakoitzeko.

Eskaria egiteak berarekin dakar baldintza agiria onartzea, eta baita aukeratutako datu guztiak zuzenak direla dioen erantzukizunpeko adierazpena egitea ere.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

LEKUA ETA EPEA: Eskariak Udal Erregistro Orokorrean entregatuko dira, goizeko 9etatik 13:30era, lanegunetan, astelehenetik ostiralera, 2026ko maiatzaren 22ra arte.

Proposamenak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako lekuetan ere aurkeztu daitezke.

Proposamenak postaz bidaltzen direnean, interesdunak justifikatu egin beharko du Posta bulegoan bidalketa egin izana, eta kontratazio organoari egunean bertan jakinarazi behar dio telex, fax edo telegrama bidez eskaintza bidali dela. Jakinarazpenean espediente zenbakia, kontratuaren xedearen titulu osoa eta lizitatzailearen izena jarri beharko dira.

Aipatutako telexa, faxa edo telegrama jaso dela egiaztatzeko, udal idazkariak eginbidea egingo du bertan. Bi baldintza hauek betetzen ez badira, ez dira onartuko epea amaitu eta gero kontratazio mahaiak jasotzen dituen eskaintzak. Edonola ere, epea amaitu eta hamar egun igaroz gero dokumentaziorik jaso gabe, ez da onartuko dokumentaziorik.

Lizitazioan parte hartzeko eskaintzak bi gutun-azal itxietan aurkeztu beharko dira, biak ere lizitatzaileak sinatuta.

Bakoitzean gutun-azalaren izena eta honako legenda jarri beharko da: "Eskoriatzako Udalaren jabetzako ETXEBIZITZA INTXAURTXUETA 26, 1 ezk, alokatzeko kontratazioan lizitatzeko eskaintza".

Gutun-azalen izena honakoa izango da:

- "A" gutun-azala: Dokumentu administratiboak.
-"B" gutun-azala: Eskaerak esleipen irizpideen arabera baloratzeko dokumentazioa.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

Gutun-azaletan aurkeztu beharreko dokumentuak orijinalak izan beharko dira edo indarrean dagoen legediaren arabera egiaztatutako kopiak.

Gutun-azal bakoitzaren barruan ondorengo dokumentuak eta horien zerrenda zenbakitua aurkeztu beharko dira:

"A" GUTUN-AZALA

DOKUMENTU ADMINISTRATIBOAK

1. 1. eranskinaren arabera idatzitako eskaria.

2. Lizitatzailearen nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna egiaztatzeko dokumentuak (NAN).

3. Bergarako Jabetza Erregistroko ziurtagiria, eskaria egiteko orduan bizikidetza unitateko kideren batek ere ez daukala etxebizitzarik jabetzan ziurtatzeko.

4. Etxebizitza eskatzaileen Eusko Jaurlaritzako erregistroan etxebizitza erosteko edo alokatzeko eskatzaile bezala izena emanda dagoela egiaztatzeko ziurtagiria.

5. Bizikidetasun-ziurtagiria.

6. BERARIAZKO BAIMENA erakunde eskudundunek kontratu hau kudeatzen duen administrazio publikoari eskatzaileak edo, hala badagokio, ordezkatutako pertsonak, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzeko informazioa eman diezaioten.

7. Babes ofizialeko etxebizitza bat, zuzkidura-alojamendu bat edo parekatutako etxebizitza bat alokairuan izanez gero, alokairu kontratuaren kopia bat.

"B" GUTUN-AZALA

DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

a) Kontratazio Mahaiak eskaerak esleipen irizpideen arabera baloratu ahal izateko dokumentuak.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

1.- Diru sarrerak egiaztatzeko dokumentuak.

Bizikidetza-unitatea osatzen duten kide guztien 2024ko ekitaldiko PFEZ aitorpenaren kopia. Edo, horrelakorik izan ezean, lan-etekinak, jasotako bete prestazio batzuk edota 2024ko pentsio-ziurtagiriak justifikatzeko dokumentuak.

2.- Etxebizitza-premia bereziko kasuak egiaztatzeko dokumentazioa:

* Banandutako edo dibortziatutako pertsonak: epai judiziala.

* Gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonak: gizarte txostena.

* Genero indarkeriaren biktimak: egiaztapen judiziala.

9.2.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Eskariak aurkezteko epea igarota, Alkate erabakiz erabakiko da baldintza agiri honetako baldintzak betetzeagatik etxebizitza erabiltzeko esleipenerako onartutako interesdunen zerrenda eta esleipenetik baztertutakoena, bazterketaren arrazoiarekin.

Zerrenda hori Udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da.

Behin behineko zerrenda behin betiko onartuko da automatikoki, baldin eta 10 egun balioduneko epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 71. artikuluak dioenarekin bat etorriz. Erreklamazioren bat aurkezten bada, beste erabaki baten bidez onartu edo baztertuko da, eta erabaki horretan argitaratuko da ere behin betiko zerrenda.

Baremazio-irizpideak

Etxebizitzak esleitzeko, **baremazio irizpide** hauek aplikatuta lortutako puntuazio-ordenari jarraituko zaio, lehentasun-ordena honetan:

a) Diru-sarrerak.

- 10 puntu emango zaizkie 0 eta **10.722,29 euro** bitarteko diru-sarrerak dituzten eskatzaileei
- 9 puntu 10.722,30 eta **17.870,49 euro** bitarteko diru-sarrerak dituzten eskatzaileei
- 8 puntu 17.870,50 eta **29.784,16 euro** bitarteko diru-sarrerak dituzten eskatzaileei
- 5 puntu 29.784,17 eta **46.463,29 euro** bitarteko diru-sarrerak dituzten eskatzaileei.

b) Bizikidetza-unitateko kideen kopurua.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

- 3 puntu emango zaizkie 3 kide dituzten bizikidetza-unitateei
- 1 puntu 2 kide dituzten bizikidetza-unitateei
- 0 puntu pertsona bakarreko bizikidetza-unitateei.

c) Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko inskripzioaren antzinatasuna.

Puntu 1 emango da antzinatasun handiena duen bizikidetza-unitateko kidearen inskripzio-urte bakoitzeko (gehienez 7 puntu).

d) Etxebizitza-premia berezia.

4 puntu emango zaizkie etxebizitza-premia berezia duen kolektiboren bateko titularren bat duten espedienteei. Kolektibo bat baino gehiagoko kideei 4 puntu emango zaizkie talde bakoitzeko, eta gehienez 8 puntu.

Honako hauek hartzen dira etxebizitza-premia berezia duten eskatzailetzat edo bizikidetza-unitatetzat:

- titularretako bat, gutxienez, kolektibo hauetako batekoa denean: guraso bakarreko familiak, genero-indarkeriaren biktimak, dibortziatuak edo legez bananduak, familia ugariak, maiatzaren 14ko 1/2013 Legearen (hipoteka-zordunen babesa, zorraren berregituratzea eta alokairu soziala indartzeko neurriei buruzkoa) 1. artikuluan aipatzen diren kolektibo bereziki kalteberak, okupatzen zuten etxebizitzatik kaleratze judiziala jasan dutenak eta 60 urtetik gorakoak.
- bizikidetza-unitateko edozein kidek adimen- eta garapen-desgaitasuna edo gaixotasun mental batekin lotutako desgaitasuna egiaztatzen duenean.

Berdinketak antzinatasun handiena duen eskaeraren alde ebatziko dira eta, antzinatasun berean, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan sarrera-data zaharrena duenaren alde.

Esleipendun izan ez diren eskatzaileekin itxaron zerrenda bat egingo da lehentasun hurrenkeraren arabera, etxebizitza hartzeko aukera izan dezaten etxebizitza hutsik geldituz gero.

9.3.- KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia hauek osatuko dute:

- Mahaiburua: Alkatea

- Mahaikideak: Udal gizarte langilea 1.
  Udal gizarte langilea 2.
  Udal idazkari-kontuhartzailea.

- Idazkaria: Udaleko idazkari-kontuhartzailea edo berak eskuordetutako funtzionario bat.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

Kontratazio Mahaiak "A" gutun-azalak ireki eta bertako dokumentu administratiboak kalifikatuko ditu.

Beharrezkoa balitz, Mahaiak hiru eguneko epea emango dio lizitatzaileari aurkeztutako dokumentazioan antzemandako akatsak zuzendu edo falta diren dokumentuak aurkezteko.

Ondoren, Kontratazio Mahaiak "B" gutun-azalak ireki eta aztertuko ditu, hau da, eskaerak esleipen irizpideen arabera baloratzeko dokumentuak dituztenak.

Eskaerak irakurri ondoren, behar beste txosten tekniko eskatu ahal izango ditu Mahaiak dokumentu horiek baldintza agiri honetan ezarritako irizpideen arabera baloratu ahal izateko.

9.4.- ESLEIPEN PROPOSAMENA

Baremoa aplikatu ondoren, aurkeztutako eskaerak sailkatuko ditu Mahaiak beheranzko hurrenkeran, eta kontratua puntuazio handiena lortu duenari esleitzeko proposamena egingo du.

9.5.- PROPOSATUTAKO LIZITATZAILEARI ERREKERIMENDUA EGITEA.

Etxebizitza esleitzeko proposatutako lizitatzaileari errekerimendua egingo zaio, errekerimendua jakinarazten zaion biharamunetik kontatzen hasita 10 egun balioduneko epean ondorengoak egin ditzan:

- Fidantza jarri.
- Lehenengo hilabeteko errenta ordaindu.
- Eskatutako aseguru polizaren eta ordainagirien kopia aurkeztu.

10 eguneko epea igarota egindako errekerimendua bete gabe eta hori justifikatzeko inolako alegaziorik egin gabe, itxaron zerrendako hurrenkerari jarraiki, hurrengo eskatzaileari esleitzea proposatuko da.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

Ez ordaintzeko arrazoiren bat ematen bada, Alkate jaunak erabaki dezake luzapena ematea edo zerrendan zain dagoenari errentamendua esleitzea. Luzapena ezingo da 10 egun baino gehiagokoa izan.

9.6.- KONTRATAZIO ORGANOA.

Alkatea da kontratazio hau egiteko eta espedientea izapidetzeko organoa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriak ezarri bezala (lege horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora).

9.7.- ESLEIPENA.

Esleipena Alkate erabakiz egingo da, betiere, proposatutako lizitatzaileak egin zaion errekerimendua bete baldin badu.

9.8.- KONTRATUA FORMALIZATZEA.

Kontratua dokumentu administratiboan formalizatuko da, 15 egun baino lehen esleipen erabakia jakinarazten den egunetik kontatzen hasita. Kontratuan jasoko dira baldintza agiri honetan adierazitako alde bien eskubideak eta betebeharrak.

9.9.- KONTRATUA FORMALIZATZEKO GASTUAK.

Kontratu hau formalizatzearen ondorioz sortutako gastu eta zergak Udalaren kontura izango dira.

10. BALDINTZA. FIDANTZA.

Kontratuaren esleipendun izateko proposatutakoak hilabeteko errentaren besteko diru kopurua jarri beharko du FIDANTZA bezala udal diruzaintzan, horrela ezarrita baitago Hiri Errentamenduen Legeko 36. artikuluan. Horretarako 10 egun baliodun izango ditu dagokion errekerimendua jakinarazten zaionetik kontatzen hasita.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

Fidantza hori honako hauei erantzuteko da: kontratuaren betebeharrei, eragindako kalte eta galerengatiko kalte-ordainei, eta kontratu honen ondorioz ezarritako zigorrei.

Fidantza horren helburua da maizterrak errentamenduaren betebeharrak beteko dituela bermatzea, eta errentamendua amaitutakoan itzuliko zaio, betiere, esleipendunak egunean baldin baditu errenten eta bere gain hartutako gainontzeko kontzeptuen ordainketa, eta etxebizitza errentan eman zen eguneko antzeko kontserbazio eta erabilera egoeran baldin badago.

11. BALDINTZA. ASEGURUA.

Maizterra da etxearen erabileraren edo gozamenaren ondorioz sor daitezkeen gertaera edo ezbeharren erantzule zuzena zibil zein zigor arloan. Horretarako, etxebizitzak erantzukizun zibileko asegurua izan beharko du eta baita sute eta hondamendi arriskuaren aurkakoa, urak eta elektrizitateak sortutako kalteen aurkakoa eta instalazioetatik izandako isuri edo ihesen aurkakoa ere, gutxienez, ondoren esango diren kapitalengatik. Aseguruaren onuradun Eskoriatzako Udala izendatu beharko du.

ETXEBIZITZA: Intxaurtxueta 26, 1. ezkerra: 71.952,72 €

Polizan jarri beharko du aseguru-etxeak ezingo duela, asegurua ez ordaintzeagatik, kontratatutako asegurua baliogabetu aurrez egoera hori alokatzaileari jakinarazi gabe.

12. BALDINTZA. GASTU OROKORRAK ETA ZERBITZU INDIBIDUALAK.

1.- Maizterra behartuta dago zuzenean ordaintzera honako hauek:

a) Errentan hartutako etxebizitzako argindar, gas, telefono eta ur zerbitzuen edo horniduren kontratazioa eta kostuak.

b) Ur, estolderia eta zabor bilketa gastuak, nahiz eta ordainagiriak jabearen izenean izan. Derrigorrezkoa da gastu horien ordainketa helbideratzea.

2.- Gastu orokorrak, hala nola, igogailuaren mantentze-lanak, administratzaile-zerbitzua, instalazio orokorren azterketa, argiteria eta elementu komunen garbiketa, maizterrak ordainduko dizkio jabekideen komunitateari.

Bere gain hartutako edozein ordainketa edo maizterrari dagokion edozein kopuru ez ordaintzeak errentamendu kontratu hau zuzenbidearen arabera indargabekotzat jo ahal izatea ekar dezake Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legeko 27.2 artikuluaren arabera.

13. BALDINTZA. MAIZTERRAREN BETEBEHARRAK.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

1.- Giltzak eman eta HIRU HILABETEKO epean etxebizitzan bizi izaten jartzea, eta Udal Erroldako Altaren bidez bizikidetza-unitateko kide guztiak bertan bizi direla egiaztatzea.

Eskaeran adierazitako bizikidetza-unitatetik kanpo beste pertsona batzuk etxebizitza horretan bizitzea gura izanez gero, errentaria behartuta dago horretarako baimena idatziz eskatzera Udalari. Eskaerarekin batera beharrezko dokumentuak aurkeztu beharko ditu kide berriekin etxebizitza eskuratzeko baldintzak betetzen jarraitzen diren berriz baloratu ahal izateko eta errenta egokitu ahal izateko. Eskatutako baimena emanez gero, etxebizitzako kide berriak hilabeteren barruan erroldatu beharko dira.

2.- Etxebizitza ohiko bizileku iraunkorra izatea. Horrekin batera, eta edozein titulurengatik, ezin izango da beste etxebizitzarik erabili. Betebehar hori ez betetzeak -etxebizitza normalean okupatu gabe edukiz edo baimendu gabeko beste xede batzuetarako erabiliz- egindako arau-hausteari dagozkion zigorrak ekarriko ditu ezinbestean.

3.- Jabetza horizontaleko erregimena arautzeko ezarritako arauak betetzea eta, uneoro, zarata-transmisioari, usainak sortzeari eta auzokoekiko harremanetan eragina izan ditzaketen gainerakoetan indarrean dauden estatuko, erkidegoko eta udaleko arauak ere betetzea.

4.- Etxebizitza eta inguruak ondo eta garbi kontserbatzea, eguneroko erabilpenak sortutako higadurak edo berak edo berarekin bizi direnek etxebizitzan sortutako kalteek eskatzen dituzten konponketak berak eta bere kontura eginez.

5.- Errentariak berariaz adierazten du udal ordenantzetan jasotakoa bete eta errespetatuko duela. Debekatuta dago edozein motako errotulu edo iragarki jartzea fatxadan edo eskapean.

Era berean, errentariak ezin du honelakorik egin:

- Industria, komertzioa edo zerbitzuak jartzea edota horietan aritzea.

- Lehergaiak, material suharberak, ezerosoak, osasungaitzak, kaltegarriak edo arriskutsuak eduki edo esku artean erabili. Debeku horretatik kanpo daude etxea garbitzeko produktuak edukitzea edo gordetzea.

- Patiora gauzak botatzea.

- Elkarbizitzarako eta etxebizitzaren kontserbaziorako kaltegarriak izan daitezkeen animaliak edukitzea.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

- Antena parabolikorik edo telebista eta irrati seinale hartzaile indibidualik jarri eraikinaren fatxadan edo teilatuan errentatzailearen idatzizko baimenik gabe. Errentatzaileak, egoki iritziz gero, seinale hartzaile kolektiboak jartzeko baimena eman dezake, eta nahi izanez gero, berak gura dituen baldintzak jarri.

- Arropak edo beste gauzaren batzuk zintzilikatzea leiho eta balkoietan, kanpokoetan zein barrukoetan, eta ezta eraikinaren beste lekuren baten ere, bereziki horretarako direnetan izan ezik.

- Aire girotua jartzea errentatzailearen idatzizko baimenik gabe.

Betebehar horiek betetzen ez badira, errentatzaileak eskubidea izango du errentamendu kontratuaren amaiera eragiteko Kode Zibilaren 1.124 artikuluan ezarritakoaren arabera.

14. BALDINTZA. OBRAK, MANTENTZE-LANAK ETA KONPONKETAK.

1.- Errentatutako etxea aldatzeko, hobetzeko edo eraberritzeko obrek Udalaren baimena izan beharko dute aurrez, eta aplikagarri diren ordenantza teknikoak eta eraikuntza arauak bete beharko dituzte. Aurrez lortu beharreko baimenetik kanpo gelditzen dira kontratu honen helburua den etxebizitzaren kontserbazio eta mantentze obrak.

2.- Errentatzaileari edo berak agindutakoei etxebizitzara libre sartzen utzi beharko zaie beharrezko kontrolak egin eta jabetza funtzioak gauzatzeko.

3.- Errentatzaileak aitortzen du adierazitako finka kontserbazio egoera onean eta bizitzeko baldintza onetan eman zaiola, eta behartuta dagoela horrela mantentzera errentamendua amaitu arte, bere kontura izanik trabatutako hodi eta hustubideak libratzea eta konpontzea, eta entxufeak, pertsianak, sanitarioak, iturriak, giltzak eta bestelako balbula, pintura eta dekorazioa, leihoak, ateak, eta abar apurtutakoan edo matxuratutakoan konpontzea.

Errentamendu kontratua amaituta, hartutako egoeran itzuli beharko da etxebizitza —1. puntuan aipatutako baimendutako obrak izan ezik—, altzari eta tresnarik gabe; era berean, jabearentzat izango dira bereizezin izaera duten hobekuntzak eta etxebizitza itzultzerakoan maizterrak eraman gabe lagatako altzariak, kontzeptu horiengatik ezer ordaintzeko beharrik gabe.

4.- Emandako elementuen mantentze-lanak eta konponketak errentariaren kontura izango dira, horien berme epean izan ezik. Emandako elementuak zahartuta gelditu direlako aldatu behar baldin badira, errentatzailearen kontura izango da, errentariak gaizki erabiltzeagatik hondatutakoan izan ezik.

15. BALDINTZA. DOKUMENTAZIOA ETA DATUAK AURKEZTEA.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

Errentariak, hala badagokio, seigarren baldintza aplikatzeari eta hamahirugarren baldintzan ezarritako betebeharrak betetzeari begira, diru sarreren maila egiaztatzeko eta eguneratzeko beharrezko dokumentu eta datu guztiak aurkeztu beharko dizkio Udalari.

Aurrez esandakoaren kaltetan gabe, errentariak berariaz baimena ematen dio errentatzaileari organismo eta erakunde eskudunetatik dokumentu horiek lortzeko, eta baita ere erakunde eskudundunek eman diezaioten kontratu hau kudeatzen duen administrazio publikoari berak edo, hala badagokio, ordezkatutako pertsonak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzeko informazioa.

16. BALDINTZA.- UNITATE IZAPIDEGILEA.

SPKLren 62.1 artikuluk xedatutakoaren arabera, espedientea izapidetu eta horren jarraipena egiteko zerbitzua honako hau izango da:

GIZARTE ZERBITZUAK

943 71 4407

gizarte@eskoriatza.eus

17. BALDINTZA. DATUAK TRATATZEKO BAIMENA.

Datu pertsonalak babesteko lege organikoak eta datuak babesteko erregelamendu orokorrak xedatutakoak betez, lizitatzaileei jakinarazten zaie beraien eskaintza eta kontratua egiteko beharrezko dokumentuak aurkezterakoan jasotako datu pertsonalak kontratuaren garapena egoki mantendu, bete eta kontrolatuko dela bermatzeko tratatuko dituela Udal honek.

Datu pertsonal horiek eskuratzeko eta zuzentzeko, eta datuen erabilera-baimena indargabetzeko eskubidea erabili ahal izango du noiznahi errentariak. Horretarako, idatziz jakinarazi beharko dio Udalari.

18. BALDINTZA. KONTRATUA SUNTSITZEKO ARRAZOIAK.

Kontratuak sortutako betebeharrak ez baditu betetzen aldeetako batek, beste aldeak eskubidea izango du betebeharra betetzea eskatzeko edo kontratuaren suntsipena eragiteko Kode Zibilaren 1124 artikuluan ezarritakoaren arabera, baldin eta bere betebeharrak bete baldin baditu.

Errentatzaileak kontratua suntsitu ahal izango du honako arrazoiengatik:

1. Errentariak errenta edo bere gain hartutako edo berari dagokion edozein diru-zenbateko ez ordaintzeagatik.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

2. Bermea edo horren eguneraketa ez ordaintzea.

3. Baldintza agiri honetan ezarritako errentariaren betebeharrak ez betetzea, baita horietako zati bat ere.

4. Etxebizitza osorik edo horren zati bat lagatzea edo azpierrentatzea.

5. 15. baldintzan aipatutako dokumentuak aurkezteko betebeharra ez betetzea.

6. Errentariak bere gain hartutako beste edozein betebehar ez betetzea.

Errentariak Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legean ezarritako edozein arrazoiengatik suntsitu ahal izango du kontratua.

19. BALDINTZA. KONTRATUAREN ERREGIMEN JURIDIKOA.

Kontratu honek izaera pribatu du, bera prestatzea eta esleitzea baldintza agiri honetan ezarritakoaren arabera arautuko da, eta bertan aurreikusi gabekoetarako ondorengo arauak aplikatuko dira:

- Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea.
- Toki erakundeen ondasunei buruzko erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua.
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea (lege horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora).
- Babes ofizialeko etxebizitzei aplikagarri zaion araudia.
- Osagarri moduan, zuzenbide administratiboko gainerako arauak aplikatuko dira, eta horrelakorik ez bada, zuzenbide pribatukoek.

Kontratuaren eraginak eta amaiera zuzenbide pribatuko arauen eta babes ofizialeko etxebizitzei aplika dakizkiekeen arauen bidez arautuko dira.

Kontratu honen prestaketa eta esleipenarekin lotutako auzigaien berri izatea administrazioarekiko auzietako jurisdikzioari dagokio.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

Jurisdikzio zibileko organoei dagokie aldeen artean sortu daitezkeen auzigaiak erabakitzea.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

1. ERANSKINA

Honako ereduaren arabera aurkeztu beharko da:

Izen-abizenak: .....

NAN: .....

Jakinarazpenetarako helbidea: .....

Herri honetako Intxaurtxueta 26, 1. ezk. helbidean etxebizitzak errentan emateko espedientearen berri izan dut, eta hori horrela, honako hauek adierazten ditut:

LEHENENGOA.- Kontratazioaren oinarri den baldintza agiria ezagutu eta, lizitazioan parte hartzeko, osorik onartzen dudala.

BIGARRENA.- Intxaurtxueta 26, 1. ezk. helbideko etxebizitzen errentamenduaren kontratazioan parte hartuko dudala.

HIRUGARRENA.- Esleipendun izateko baldintza administratibo partikularren agirian eskatutako baldintza guztiak betetzen ditudala, eta, zehazki, honako hauek:

- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan jasotako kontratatzeko debekuetatik bat bera ere ez izatea. 9/2017 Legearen bidez 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

- Kontratuarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako Espainiako edozein ordenako epaitegi eta auzitegien

ZIRRIBORROA - BORRADOR

menpekotasuna onartzea, eta hala badagokio, lizitatzaileak dagokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egitea (atzerriko lizitatzaileen kasuan).

- Jakinarazpenak bidaltzeko helbide elektronikoa honako hau dela: ……

LAUGARRENA.- Aitorpen honen hirugarren puntuan aipatutako dokumentuak ditudala eta horiek baliozkoak direla egiaztatzeko konpromisoa hartzen dudala kontratuaren esleipendun izateko proposatutakoa izanez gero edo eskatzen zaidan edozein unetan.

BOSGARRENA.- BAIMENA ematen diodala berariaz Eskoriatzako Udalari sektore publikoko edozein erakundetik zuzenean jasotzeko goian adierazitako etxebizitza errentan hartzeko eskatzen diren baldintza betetzen ditudala egiaztatzeko beharrezko datuak.

BAI/Sí ☐ **EZ** /No ☐

Eta jasota gera dadin, aitorpen hau sinatzen dut.

Eskoriatzan, 20...ko _____ren___ (e)(a)n

Lizitatzailearen sinadura

BIZIKIDETZA EDO FAMILIA UNITATEAREN DATUAK

BAIMENA ematen diot berariaz Eskoriatzako Udalari sektore publikoko edozein erakundetik zuzenean jasotzeko udal etxebizitza bat eskatzeko behar diren baldintzak betetzen ditudala egiaztatzeko beharrezko datuak.

Izen-abizenak	NAN	Sinadura

ZIRRIBORROA - BORRADOR

PLIEGO DE CONDICIONES QUE HA DE REGIR LA ADJUDICACION DEL CONTRATO DE ARRENDAMIENTO DE LA VIVIENDA MUNICIPAL SITA EN INTXAURTXUETA 26-1 IZQUIERDA.

CLÁUSULA 1. OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del contrato es el arrendamiento de la siguiente vivienda propiedad del ayuntamiento de Eskoriatza, para el fomento del alquiler y bajo criterios que permitan establecer unas condiciones favorables para el ejercicio del derecho a una vivienda digna y adecuada a quienes carezcan de la misma.

VIVIENDA IZQUIERDA DE LA PLANTA PRIMERA, DEL PORTAL SEÑALADO CON EL NUMERO 26 de INTXAURTXUETA AUZOA DEL TERMINO MUNICIPAL DE ESKORIATZA

Ocupa una superficie útil aproximada de 69,55 m2

Se le asignan los siguientes ANEJOS INSEPARABLES:
C) El GARAJE señalado con el NUMERO : 16
B) El TRASTERO señalado con el NÚMERO: 1

CLÁUSULA 2. NATURALEZA JURIDICA

El contrato tiene la calificación de contrato privado, tal y como establece el artículo 9 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014.

CLAUSULA 3. PROCEDIMIENTO DE SELECCIÓN Y ADJUDICACION

La forma de adjudicación de los contratos de arrendamiento será el concurso público, de acuerdo con el artículo 107.1 de la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas.

Para la valoración de las solicitudes se tendrán en cuenta los criterios de adjudicación recogidos en la cláusula 9.2.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

CLÁUSULA 4. PERFIL DEL CONTRATANTE

Con el fin de asegurar la transparencia y el acceso público a la información relativa a su actividad contractual, y sin perjuicio de la utilización de otros medios de publicidad, este Ayuntamiento cuenta con el Perfil de Contratante al que se tendrá acceso según las especificaciones que se regulan en la página web siguiente: www.eskoriatza.net.

También se podrá solicitar información adicional sobre los pliegos en la siguiente dirección:

- Ayuntamiento de Eskoriatza
  Fernando Eskoriatza plaza s/n 20540 Eskoriaa
  Teléfono: 943 714407
  Emai: hazi@eskoriatza.eus

CLÁUSULA 5 DURACION DE LOS CONTRATOS

Cada contrato tendrá una duración de UN (1) AÑO. Llegada la fecha de vencimiento del plazo de duración pactado y de conformidad con lo dispuesto en el Artículo 9 de la Ley 29/1994, de 24 de noviembre, de Arrendamientos Urbanos el contrato se prorrogará por plazos anuales hasta que el arrendamiento alcance una duración de SIETE (7) AÑOS, salvo que el inquilino manifieste al arrendador, con treinta días de antelación como mínimo a la fecha de terminación del contrato o de cualquiera de las prórrogas, su voluntad de no renovarlo.

Si llegada la fecha de vencimiento del contrato, o de cualquiera de sus prorrogas , una vez transcurrido como mínimo siete años de duración de aquél, ninguna de las partes hubiese notificado a la otra, al menos con cuatro meses de antelación a aquella fecha en el caso del arrendador y al menos con dos meses de antelación en el caso del arrendatario, su voluntad de no renovarlo, el contrato se prorrogará durante un año más, a tenor del art. 10 de la LAU.

DESESTIMIENTO: El inquilino podrá desistir del Contrato, en cualquier momento de su vigencia, siempre que dé el correspondiente preaviso al arrendador con una antelación mínima de dos meses.

CLÁUSULA 6. IMPORTE DE LA RENTA

El precio anual del contrato queda establecido de la siguiente forma: según los ingresos anuales de la unidad convivencial arrendataria, computados según se establece en el artículo 17 de la ORDEN de 30 de junio de 2022, sobre determinación de los precios máximos de las viviendas de protección social.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

Precio vivienda: 71.952,72€

